

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARI MOTARI DAGOKION PLAZA BEHIN BETIKO IZAERAZ BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA (ARKITEKTO TEKNIKOA LANPOSTUARI DAGOKIONA) PLAZA BAT BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN ERABAKIA: LEHIAKETALDIKO BEHIN BETIKO EMAITZAK ONARTZEA ETA IZENDAPEN PROPOSAMENA

2024ko urtarrilaren 22an egindako bileran, epaimahai kalifikatzaileak honako erabaki hauek hartu ditu, besteren artean:

Lehena.- Merezimenduen behin-behineko emaitzen aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez, administrazio bereziko eskalako teknikari azpieskalari eta erdi mailako teknikari motari dagokion plaza, arkitekto teknikoa lanpostuari dagokiona, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa prozesuko hautagaien merezimenduen behin betiko emaitzak onartzea:

ABIZENAK ETA IZENA	NA	LAN ESPERIENTZIA (orokorra zein espezifikoa)	MEREZIMENDU AKADEMIKOAK	GUZTIRA
TELLERIA IZTUETA, ASIER	***3581**	30,00	8,90	38,90
ARISTIZABAL LASA, ERLAITZ	***0300**	9,48	10,00	19,48
ELORDI LOYOLA, JANIRE	***4029**	6,79	10,00	16,76
CALVO NUÑEZ, ANE	***1505**	10,00	10,00	20,00

Bigarrena.- Azken kalifikazioak onartzea, hautagai bakoitzarentzat oposaketa eta lehiaketa faseetan lortutako puntuazio guztiak batuta:

ABIZENAK ETA IZENA	NA	OPOSIZIOALDIA	LEHIAKETALDIA	GUZTIRA
TELLERIA IZTUETA, ASIER	***3581**	43,73	38,90	82,63
ARISTIZABAL LASA, ERLAITZ	***0300**	34,57	19,48	54,05
CALVO NUÑEZ, ANE	***1505**	33,94	20,00	53,94
ELORDI LOYOLA, JANIRE	***4029**	34,17	16,76	50,93

Hirugarrena.- Administrazio bereziko eskalako teknikari azpieskalari eta erdi mailako teknikari motari dagokion plaza, arkitekto teknikoa lanpostuari dagokiona, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa prozesuaren deialdian plaza eskaini denez, zerrendan dagoen lehenengo hautagaiaren aldeko esleipen proposamena onartzea, hain zuzen ere, Asier Telleria Iztueta hautagaien alde.

Honenbestez, Alkate andreari proposatzea Asier Telleria Iztueta izendatzeko arkitekto teknikoa lanpostuari dagokion administrazio bereziko eskalako teknikari azpieskalari eta erdi mailako teknikari motari dagokion plaza betetzeko.

Laugarrena.- Izendapen hau burutu aurretik, proposatutako hautagaiak aurkeztu beharko ditu, oinarri orokorretako hamabosgarren oinarriari jarraiki, 20 egun balioduneko epean, behin betiko emaitzen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita, hautaketa-prozesuan parte hartzeko aurkeztutako eskaeran alegatutako baldintzen egiaztagiriak:

- Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen adierazpena.



- Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen adierazpena.
- Korporazioak zehazten dituen zerbitzu medikoek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Ezgaitasuna duten hautagaiak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituen.
- Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulua edo hori lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia konpultsatua eta deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoak egiaztatzea.

Adierazitako agiriak aurkeztea ezinezkoa bada, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izango du hautagaiak, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz. Funtzionario publiko edo lan- kontratuko langile denak ez ditu agiri bidez justifikatu beharko aurreko izendapena lortzeko egiaztatutako baldintzak eta betekizunak. Ministerio, administrazio autonomiko, toki-korporazio edo menpeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, bere izaera eta bere zerbitzu- orrian jasotako inguruabar guztiak egiaztatuz. Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako hautagaiak ez badu bere dokumentazioa aurkezten edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango da izendatu, eta bere jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe, eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko du.

Bosgarrena.- Oinarri espezifikoetako seigarren oinarriari jarraituz, Alkate andreari proposatzea plazarik eskuratu ez dutenen eta hautaketa prozesuko oposizio fasea gainditu dutenekin lan-poltsa onartzea.

Seigarrena.- Erabaki hau Oiartzungo Udaleko web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Zazpigarrena.- Epaimahai Kalifikatzaileak hartutako erabakiaren aurka, ez diola amaiera ematen administrazio-bideari, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Alkateari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Oiartzunen, sinadura egunean

Epaimahaiko idazkaria